

UDALAREN OSOKO BILKURA

2011ko ekainaren 8ko ezohiko bilera

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA:

EAJ-PNV- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO JAUNA

ZINEGOTZIAK:

EAJ-PNV- JESÚS BILBAO CURIEL JAUNA

EAJ-PNV- AINARA URBIETA BERGARA ANDREA

EAJ-PNV- BEATRIZ RESA BARDECI ANDREA

EAJ-PNV- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JAUNA

EAJ-PNV- M^º CARMEN URBIETA GONZALEZ ANDREA

EAJ-PNV- JON LOIZAGA CAYERO JAUNA

EAJ-PNV- JON PELI LAZKANO ALZAGA JAUNA

EAJ-PNV- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA JAUNA

PSE-EE- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES JAUNA

PSE-EE- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO ANDREA

PSE-EE- LUIS MARIA PEREZ PEREZ JAUNA

PSE-EE- PILAR GRADOS GARCIA ANDREA

PSE-EE- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO JAUNA

PSE-EE- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ ANDREA

PP- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ JAUNA

PP- FERNANDO PINTO PALACIOS JAUNA

EB-Berdeak- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SAINZ JAUNA

EB-Berdeak- ISABEL GARCIA GARCIA ANDREA

Leioako udaletxean, bi mila eta hamaikako ekainaren zortziko arratsaldeko ordu bata eta berrogeita bost minutu direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna**, izan da bilerako burua. Harekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran, eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. **Behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu die. Bertaratuak bildu dira ezohiko bilera egiteko, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko. Alkate-buruak alde aurretik egin die bileran parte hartzeko deialdia, aipatutako Legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoarekin, eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrira.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du. Jarraian, ezohiko bilera honen gai-zerrendan agertzen diren gaiak aztertzeari ekin diote:

1.- OHIKO BILEREN AKTAK IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA: 2010EKO ABENDUAREN 30EKOA, 2011KO MARTXOAREN 31KOA, 2011KO MAIATZAREN 20KOA, 2011KO EKAINAREN 2KOA: Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 36.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko, Udalburutzak galdetu du epigrafean aipatutako aktei buruzko oharrik egin nahi duten. Ez da oharrik egin, eta aho batez onartu dituzte aktak.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Osoko Bilkurak **aho batez** onartu ditu 2010eko abenduaren 30ean, 2011ko martxoaren 31n, 2011ko maiatzaren 20an eta 2011ko ekainaren 2an egin ziren ohiko bileren aktak.

Eta arratsaldeko ordu bata eta berrogeita bost minutu direla, Alkatetza Udalburutzak ekitaldia bukatutzat jo du, eta idazkari honi agindu dio dagokion akta egiteko, adostutako baldintzetan onartu dena. Eta hori guztia, nik, idazkaria naizen honek, ziurtatzen dut.

OE

ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

2011KO EKAINAREN 8KO EZOHIKO BILERAREN AKTAREN ERANSKINA

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak esandakoaren laburpena:

Udalbatzaren osoko bilkuraren azken bilera denez, Iñaki, Bea, Ainara, Txus, Jon, Pilar, Luis Mari eta Elsa bereziki aipatu nahi ditut, bai eta hiru gogoeta egin ere:

Lehenik eta behin, zorionak eman nahi dizkizuet zinegotziak izan zaretelako, eta Leioa udalerrria, bai herri barruan, bai herritik kanpo ordezkatu duzuelako; bigarren, eskerrik asko, egin eta garatu duzuen lanagatik; eta hirugarren –gogoeta hau nirea da, besteei baino– inbidia dizuedala esan nahi dizuet.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevillo jaunak esandakoaren laburpena:

Talde Sozialistaren bozeramaile gisa parte hartzen dudana azkeneko aldi hau baliatu nahi dut gai bi aipatzeko: batetik, EAJ zoriondu nahi dut gure herrian hauteskundeak irabazi egin dituelako; eta, bestetik, aurreko agintaldiko azken bileran esandako hitzak gogora ekarri nahi ditut, hau da, duela lau urte baino gutxi gehiago, kargua uzten zuen Gobernuari gogoratu zitzaizola zein egoera zailetan egiten den oposizioaren lana. Hauexek izan ziren hitzak: "Hemendik aurrera oposizioan egongo direnak egun arte gu egon garen baino erosoago egon daitezten eskatu edo nahiko nuke". Era berean, ondorengo bilera batean, 2007ko uztailaren 12an, gaur egungo Gobernuak konpromisoa hartu zuen bai ala bai zinegotziek araudi bat izan zezaten, besteak beste, hauxe esan zuen: "Irailean, Gobernuaren akordioa egon zein ez, Gobernu Talde honek batzorde edo mahai bat sortu nahi du Toki Karguaren Estatutua definitzeko, bai eta barne funtzionamenduko araudi batean sartu ere".

Kontuan hartzekoa da egoerak gaur egun aldatu gabe jarraitzen duela, nahiz eta kargua uzten zuen Gobernuan entzun berri dugun sentsibilitate hori adierazi izan. Hortaz, eskaera hori berritzea behintzat gustatuko litzaziguke; batzuetan, ametsekin gertatzen den bezala, nahiak dituztenei ere bere onera etorri bezain laster, ahaztu egiten baitzaizkie.

Bestalde, Udaleko langileei gurekin eduki duten jokaera eskertu nahi diegu, bereziki gehien tratatu gaituztenei. Langile guztiei beren lana, batzuetan gaitzetsia, eta haien profesionaltasuna eskertu nahi dizkiegu, jakin baitakigu etxea esku onetan dagoena.

Zinegotzietatik dagokienez, hemendik aurrera etorriko ez direnak aipatu beharra dago: Beari, Ainarari, Joni, Arturori, Iñakiri, eta jakina, Pilarri, Elsari eta Luis Mariri zorte ona opa nahi dizuet; bai eta Txus Bilbaori ere: Talde Nazionalistaren bozeramailea zaren aldetik, tratatu hurbila, negoziatu nahia, eta ez bairik gabeko karisma pertsonala eskaini dizkiguzulako beti. EAJrentzat, seguru asko, galera handia izango da, baina are handiagoa da Leioa herriarentzat. Zorte ona guztioi zuen proiektu pertsonaletan.

Edonola ere, Leioan zuekin elkartzeko prest izango gaituzue beti. Eskerrik asko, osasuntsu izan, eta zorte on, bai kargua uzten duzueinei, bai hona itzuliko garenoi, datorren agintaldia bakea eta zeharkako akordioak lortzeagatik nabarmena izan dadin. Eskerrik asko.

PSE-EEko Luis Maria Pérez Pérez jaunak esandakoaren laburpena:

Osoko bilkuraren azken bilera honetan, nik neuk esan nahi diot agur Udalbatzari. Oso harro sentitu naiz leioarrak ordezkatzeko aritu izanagatik, eta bide batez, eskerrak eman nahi dizkizuet, bukatzeaz dagoen agintaldi honetan zuekin eta teknikariekin asko ikasi baitut.

Horrekin batera, desio bat adierazi nahi dut: Udaletxera etorriko diren hurrengo zinegotziak eskolta barik etor daitezten (desioa eta gogoeta da); eta, batez ere, ETA behin betikoz desagertu dadin, herri honetan min handia egin baitu. Eskerrik asko.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaz jaunak esandakoaren laburpena:

Guk Eusko Alderdi Jeltzalea zoriondu nahi dugu, hauteskundeetan izan dituen emaitzengatik eta leioarrek eman dioten konfiantzagatik, Udal Gobernu berria osa dezan.

Hastear dagoen agintaldian jarraituko ez duzuen zinegotzior onena opa nahi dizuegu, tratua ona eskertu, bai eta, eztabaidak eztabaida, gaiak aurrera eramateko izan duzuen jarrera lagungarria ere.

Era berean, ezin dut Arturo Aldecoa lagunkidea aipatu gabe utzi, nahiz eta gaur hemen ez egon. Esker ona adierazi nahi diogu Udalbatza honetan 14 urtean hartu duen arduragatik. Bidezkoa da beraren lana eskertzea, bai eta Leioa herriari eskaini dion denbora ere.

Oro har, Udaletxeko langile guztioi, Udalbatzako gainerakoei eta udal talde guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu lau urteotan gure udal taldearekin lankidetzan aritu izanagatik, Udaletxeko eguneroko eginkizunetan.

Azkenik, Udalbatza berriari eta hastear dagoen agintaldiari dagokienez, desio bat adierazi nahi dugu: Udalbatza berriak leioarren alde ahalik eta ondoen lan egiten jakin dezan, helburu horrexek elkartzen gaituela uste baitugu. Eskerrik asko.

EAJko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Nik ez neukan hitza hartzeko asmorik, baina PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillok esandakoa eskertu nahi dut, eta horrekin batera, eskerrak eman nahi dizkizuet guztioi, Udaletxeko teknikariei, hemen zaudeten guztioi, Bulego Teknikokoei eta abarrei, guztiokin lan egiteko aukera izatea zorte handia izan baita.

Zure parte-hartzean kontu bat zuzendu behar delakoan nago. Esan duzu askotan gaitzetsi egin dituztela, eta nik benetan uste dut Leioako teknikariak ez daudela gaitzetsita, nire ustez, guztiok jakin badakigu Leioako teknikariek oso ondo jarduten dutela.

Bereziki eman nahi dizkiet eskerrak hainbeste zaindu nauten lagunkideoi, batzuetan, ingurukoek nola zaintzen zaituzten, halakoa norberaren irudia. Eskerrik asko.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak esandakoaren laburpena:

Aipatu nahi nuen lehen gaia dagoeneko aipatu du PSE-EEko bozeramaileak. Gogoratzen dut nola, duela hiru urte baino askoz gehiago, hain zuzen ere, hitz egiten, eztabaidatzen, negoziatzen eta akordioak lortzen aritu ginela, gai bat argi, eta idatzita ere, uste dut utzi gurea: nola hobetu Udalbatzan lan egiten dugun guztion egoera. Nire ustez, zorte txarra izan genuen hurrengo aurrekontuan dena izoztu egin zelako, eta hartara, gai hori alde batera utzi zen. Hala ere, gai hori neuk bultzatu dut Udalbatza honetaz gozatzen eman ditudan azken bederatzi edo hamar urteotan. Bihotz-bihotzetik esaten dut: gozatu egin dut. Oso desatseginak izan ziren egoera batzuk bizi izan ditugun arren, egia esan, azken urteotan asko ikasi eta gozatu dut.

Gaiak hainbat modutan ikusteko eta pertsona desberdinak ezagutzeko zortea izan dut, eta horregatik, aberasgarria izan da niretzat. Ikuspegi guzietatik ikusita ere, pertsona guztiek aurrera egin eta gauzak hobetu nahi dituztela egiaztatzean, disfrutatu egin dut. Alde honetan egoteko zortea izan dut, eta azkenean, horrek guztiak desio hau eragin duela uste dut: nire ustez, herritar gehienek hemen eman beharko lukete denboraldi bat, oso garrantzitsua baita gaiak ikuspegi bietatik aztertzea. Gaiak gobernuaren barruan eta gobernutik kanpo ezagutzeko aukera izan dut, eta horrek gogoeta eginarazi eta iritzi guztiak kontuan harrarazi dizkit. Kontuak hotzago eta istilurik gabe aztertzeke denbora, aukera eta beharrezko erlaxazioa izango bagenitu guztiok, gure lana asko aberastuko genuke, bai eta hain garrantzitsua den giro ona lortuko ere; izan ere, azken zazpi edo zortzi urteotan zintzotasunez eta elkarlanean beteriko giro ona izan dugu nagusi, istiluak aretoan uzten eta eskaileretatik pertsona gisa irteten jakin dugulako.

Batez ere, gizalegez eta errespetuz jokatu dugu, eta hori da neure buruari eta besteek eskatzen didan gauza bakarra, hortik baitatoz harremanetan eskatzen ditudan gainerako gauza guztiak. Beraz, jarraituko duzueni zorte ona opa dizuet, besteek erabakia hartuta dugu eta. Egun arte eduki ahal izan ditugun harreman berberak edo hobeak izan

ditzazuen nahi dut, denok oinez igo zaitezten, irteeran ez dezazuen inor zure zain behar, eta gure herria aurrera eramaten jarrai dezazuen, nire ustez, merezi du eta. Eskerrik asko guztioi.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak esandakoaren laburpena:

Eskerrik asko guztioi.

Juanito Oyarzabalek eta Edurne Pasabanek izan duten iskanbila dela eta, Udaletxeko funtzionario batek zioen haiei ahaztu egin zaiela alpinistak izan aurretik, pertsonak direla.

Dena dela, Iñaki Azkunaren hitzak parafraseatuko dut: neu ere ohituta nengoen osoko bilkura honekin egotera, eta haien falta nabarituko dut; batez ere, pertsonen hutsunea sumatuko dut, eta zertxobait, ekainaren 11n izango ez dudan gehiengo absolutuarena ere, baina ekainaren 11n baino ez.